

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

86. zenbakia**Data 2011-05-09****78 orria**

7 Udal Administrazioa**ERRENTERRIAKO UDALA****Salmenta Ibiltaria Arautzeko Ordenantzaren behin betiko onarpena eta testu oso-oso argitaratzea.**

ERRENTERRIAKO UDALA

Trafiko eta Garraio Departamentua

Iragarkia

2011ko otsailaren 25ean Udaltzarak egindako ohiko osoko bilkuran alegazioak ebatzi eta erabaki zuen Salmenta Ibiltari Ordenantzari behin betiko onarpena ematea.

Hori horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70-2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, onartutako Salmenta Ibiltaria Arautzen duen Ordenantza horren testu oso-oso argitaratzen da eta argitaratzen denetik 15 lanegunera sartuko dela indarrean adierazten da.

Eta orohar guztiek jakin dezaten eta eraginak izan ditzan argitaratzen dut. Era berean, jakinarazten da egintza honek administrazioaren bidea agortzen duela eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Halaber, egoki irizten diozun beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango duzu.

Hau da onartu den Ordenantzaren testua:

SALMENTA IBILTARIA ARAUTZEKO ORDENANTZA**SARRERA**

Azken urte hauetan gure herrian salmenta ibiltaria ohikoa bihurtu da, eta beraz, merkataritza-jarduera guztiek bezala, inplikaturako kolektiboek egiten dituzten eskariei eta gaiaren inguruko lege berriek diotenari egokitu behar zaio.

Udalari dagokio merkataritza-jarduera mota honek eragiten dituen sentsibilitate ezberdinak kontuan hartuko dituen legeko baliabide bat bideratzea; dendariak, saltzaile ibiltariak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak.

Aplikagarria den legedirari dagokionez, kontuan hartu dira autonomiako legedia, alde batetik, hau da, maiatzaren 27ko 7/1994 Legea, Euskal Herriko Merkataritza Jardueraren Legea, eta, beste alde batetik, arestian indarrean sartu den otsailaren 26ko 199/2010 Errege Dekretua, salmenta ibiltaria edo ez sedentarioa arautzen duena. Lege hori, aldi berean, urtarrilaren 15eko 7/1996 Txikizkako Merkataritza Arautzeko Legearen III Tituluaren IV atala arautzen du. Azken lege hori martxoaren 1eko 1/2010 Legeak aldatu du, hain zuzen ere, eman baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/CE Zuzentaraua, barne merkatuko zerbitzuei buruzkoa, egokitzeko.

Xede horrekin egin da Ordenantza hau, betiere indarrean dagoen araudia betetzeko, lehiakortasun librearen barruan eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak errespetatzeko.

I TITULUA**«XEDE ETA APLIKAZIO EREMUA»**

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honek Errenteriako udalerrian salmenta ibiltaria arautzea du xedetzat

Salmenta ibiltaritzat jotzen da: Dendatik kanpo, jarri eta kendu egiten diren postu edo instalazio eta ibilgailuetan ohiko edo noiz behinkako saltzaileek egiten dutena.

Debekaturik geratzen da udalerrri osoan Ordenantza honetan aurreikusirik ez dagoen salmenta ibiltari oro egitea.

II TITULUA

«SALMENTA IBILTARI MOTAK»

2. artikulua. Salmenta ibiltari motak.

Ordenantza honen mende ondorengo salmenta ibiltari motak egin ahal izango dira:

- a) Toki jakinetan eta aldizkatasun finkoarekin egiten diren ohiko merkatuak edo berriak.
- b) Jaietan edo herri mailan egiten diren ekintza herrikoi edo bestelako jairen batean, udan edo neguan, edo kirol, kultur edo jolas jarduera dela-eta, tarteka-marteka jartzen diren merkatuak. Modalitate honen barruan sartzen dira artisautza-azokak, ezohiko izaera dutenak. Eta Alkatetza edo horrek delegatutako organoaren erabaki bidez esango da non ipini, zenbat egunez edo zenbat saltoki jarriko diren.
- c) Kamioi-dendadunetan egiten den salmenta. Horretarako, garraioaren eta baimendutako gauzak saltzeko araudiaren arabera egokitutako ibilgailua erabiliko da.

III TITULUA

«XEDAPEN KOMUNAK»

I. KAPITULUA. -SALMENTA IBILTARIETAN SAL LITEZKEEN GAUZEI BURUZKOA

3. artikulua. Sal litezkeen gauzak.

1. Baimena eman ahal izango da eskumena duten agintarien ustetan osasunarentzat arriskurik ez duten gauzak saltzeko.
2. Baimena dutenek zuzen adierazi beharko dute saltzen dituzten gauzek erregelamendu tekniko-sanitarioak eta gainontzeko araudiak betetzen dituztela.

II. KAPITULUA. -SALMENTA IBILTARIA EGITEARI BURUZKOA

4. artikulua. Salmenta ibiltarian aritzeko bete beharreko baldintzak

Errenterian salmenta ibiltaria egin ahal izateko zera eskatuko da:

1. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion epigrafeetan alta emanda egotea, alegia, indarrean dagoen araudian horrela eskatzen denetan eta atal honetan zorrik ez edukitzea.

2. Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea eta kuotak ordainduta izatea. Pertsona juridikoen kasuan, Gizarte Segurantzaren enpresa gisa izena emanda egotea, langileak deklaratuak eta kuotak ordainduak.
3. Bete beharko dira higiene-osasunari buruzko baldintzak edo produktuak merkaturatzeko eta instalakuntzei buruz erregelamendu zehatzek jartzen dituzten bestelakoak.
4. Udalaren baimena eduki beharko da.
5. Ordaintzea, ordaindu beharreko tasak.

III. KAPITULUA. ESKAEREI BURUZKOA

5. artikulua. Alkateari zuzendutako eskaria.

Saltoki batean saldu nahi dutenek, Udaltzako alkateari egingo diete eskaera, eta bertan zera jarri beharko dute:

- a) Eskaera egilearen izena eta deiturak, edo sozietate-izena, hala badagokio.
- b) Pertsona fisiko edo juridikoaren Identifikazio Fiskalerako Zenbakia (IFZ).
- c) Helbidea.
- d) Instalazio eta salmentako artikuluen deskribapena.
- e) Pertsona juridikoak direnean, gainera zera adieraziko dute: Saltzeko baimena duenaren kontura jardungo duen langile edo bazkidearen izena, helbidea eta NAN.
- f) Tokia, eguna eta ordutegia, edo, hala badagokio, baimena eskatu duen merkatuaren aldizkatasuna eta kokapen finkoa.
- g) Okupatuko dituen metro kopurua, edota produktuak saltzeko furgoneta edo kamioi egokituren bat erabiltzea derrigorrezkoa den.
- h) Eskaria baloratu ahal izateko merezimenduak eta gainerako datu baloragarriak.

6. artikulua. Eskaerak aurkeztea.

1. Eskaera aurkezteak interesatuei eskatuko die, bakar-bakarrik, ardura aitortzea sinatzea. Bertan, gutxienez, ondorengoak adieraziko dira:

- a) Ezarritako baldintzak betetzen dituela.
- b) Jardueraren hasieran hori egiaztatzen duen dokumentazioa edukitzea.
- c) Lizentzia indarrean dagoen epean baldintzak betetzen direla bermatzea.

2. Horretaz gain, ardura aitortzen ondorengo alderdiak ere jasoko ditu:

- a) Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren bidezko epigrafean alta emanda egotea eta tarifaren ordainketan egunean egotea, edo salbuetsia egonez gero, zergak ordaindu beharrekoen erroldan alta emanda egotea.
- b) Gizarte Segurantzaren kotizazioen ordainketan egunean egotea.